

## 6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK

**Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?**

Funtsezkoa da enpresa batean erabakitzea nolako harremana izan nahi duen bezeroekin, irabazi maximoak lortzeko helburuarekin. Bezeroekiko harremana pertsonala eta aurrez aurrekoa edota automatizatua izan daiteke, aplikazio eta web digitalak erabiliz.

Bezero berriak lortzeko eta dituzunak mantentzeko asmoa baduzu, enpresan zer ekintza egingo dituzun eta espero diren helburuak zehaztu behar dira bezeroen fidagarritasuna lortzeko asmoz.

Gure bezeroak mantentzeko eta ahal izanez gero gehiago lortzeko publizitate sistema bat ezarriko dugu. Hasteko, sare sozialetan promozionatuko dugu sortutako proiektua, eskainiko ditugun produktuak erakutsiz eta hauek erosteko arrazoiak emanez. Proiektuari aurrerapena ikusiz gero, 24h-ko makina hauei hedapena emango genieke eta beste zonalde batzuetan ezarriko genituzke, eskaria handitzeko asmoz.